

ZURI-BELTZEKO EMAKUMEAK

Irakurri garai bateko emakumeen bizi-baldintzei buruzko artikulua pasarte, eta hautatu erantzun zuzena bi aukeren artean. Bide batez, egiaztatu 1. ariketako galderak asmatu dituzun.

36ko gerraosteko emakumeen bizi-baldintzak

Eguneroko bizimoduan, emakumeak (1) **mugak asko / muga asko** zeuzkan, eta, gizonaren baimenik gabe, ezin zituen

(2) **gauza batzuk / gauza batzuek** egin; adibidez, ezin zuen kontu korronterik ireki, ezin zuen banketxetik dirurik atera, ezin zuen etxetik kanpo lan egin... Emakumeak etxetik kanpo lan egiten bazuen, gizonarentzat umiliagarria zen.

Bestalde, emakume "ondratuak" (3) **hainbat debekuak / hainbat debeku** zeuzkan; besteak beste, ezin zituen (4) **zenbait film / zenbait filma** ikusi, (5) **zenbait liburu / zenbait liburuak** irakurri, eta (6) **arropa batzuk / arropa batzuek** ezin zituen jantzi, ez galtzak, ez gona motzak, ez alkandora eskotedunak, ez bikiniak...

Sexu-harremanak haurrak izateko bakarrik izaten zituen eta ezkontuta egon behar zuen; ezkondu gabe bazegoen, bekatua zen.

Garbi dago emakumearen bizimodua dezente aldatu dela, baina oraindik gauza asko dago aldatzeko. Ez da hala?



Iturria: *Berria.eus*, moldatua